

Herri Administrazioen erosketa eta kontratazio iraunkorreko jardunbide egokiak

Artizar Erauskin Tolosa, Elena Martinez Tola, Mikel Zurbano Irizar
Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU

Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra (EKPI) Herri Administrazioek iraunkortasunaren alde jarduteko duten tresna erabilgarrietako bat bezala identifikatu da, bereziki sektore publikoak ekonomian leku nagusia duen herrialdeetan. Tradizionalki, Erosketa eta Kontratazio Publikoaren (EKP) arduradunek arlo ekonomikoari bakarrik erreparatu diote. Baina, ingurumen-irizpideak zein irizpide sozial eta etikoak barneratuz, iraunkortasunaren alde egin dezakete. Beraz, artikulua honen helburua zera da, garapen iraunkorraren testuingurua kontuan izanik, EKPren prozesuari loturiko lege-esparruak izan duen bilakaera eta EKPI praktikan jartzeko dauden aukerak aztertzea. Horrekin batera, mundu-mailako zenbait Herri Administraziook aurrera eraman dituzten hainbat jardunbide egoki ere jasoko dira.

GAKO-HITZAK: Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra · Garapen iraunkorra.

Sustainable Public Procurement good practices

Sustainable Public Procurement (SPP) apparently seems to be an useful tool to promote sustainability, particularly within contexts in which public sector represents a significant percentage of the economy. Traditionally, Public Procurement process does not have into considerations sustainability criteria. The main objective of this article is to analyse the development of the legal framework of the Public Procurement and to study the different possibilities to put into practice the SPP. Furthermore, some SPP good practices are collected.

KEY WORDS: Sustainable Public Procurement · Sustainable Development.

Jasotze-data: 2014-02-03. *Onartze-data:* 2014-03-06.

1. Sarrera

Urteetan zehar Erosketa eta Kontratazio Publikoari (EKP) errentagarria izatea eskatu zaio, hots, erakunde publikoek ondasun edo zerbitzu baten edo beste baten aldeko erabakia hartzerakoan preziorik baxuenaren irizpideari jarraitzea eskatzen zitzaion, alegia, arlo ekonomikoari erreparatzen zitzaion nagusiki. Baina, garapen iraunkorra maila orokor batean jarraitu beharreko ardatz nagusia dela onartzen hasi denetik gizarte- eta ingurumen-arloei ere beren garrantzia aitortu zaie, baita erosketa eta kontratazio publikoan ere.

1992. urtean Rio de Janeiron egin zen Ingurumen eta Garapenaren Nazio Batuen Konferentzian, kontsumo- eta ekoizpen-eredu iraunkorra, garapen iraunkorra lortzeko ezinbesteko baldintzatzat onartu zen. Horrela, konferentzia berean adostu zen Agenda 21 programaren 4. kapitulua kontsumo-ereduaren bilakaerari buruzkoa da. Hamar urte beranduago, mundu-mailako agintariek Johannesburgoko Plana sinatu zuten eta kontsumo- eta ekoizpen-eredu iraunkorrerantz joateko 10 urteko esparru-programak sustatzeko konpromisoa hartu zuten. 2003. urtean konpromiso hori betetzeko asmoarekin Marrakech prozesuari hasiera eman zitzaion. Prozesu horren barruan zazpi lantalde eratu dira, horietako bat Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorrari buruzkoa da.

Herri Administrazioek beren papera jokatzen dute kontsumoan, bereziki sektore publikoak ekonomian leku nagusia duen herrialdeetan. Azken estimazioen arabera, Ekonomia eta Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea (ELGE) osatzen duten herrialdeen kasuan EKPk barne-produktu gordinaren (BPG) % 8-27 azaltzen du. Europar Batasuneko erakunde publikoek BPGaren % 17-19 inguru edo 1.500-2.100 bilioi gastatzen dituzte ondasun eta zerbitzuetan (Evans, Nuttal, Mouat, eta Ewing, 2010; Europako Batzordea, 2011; OECD, 2013).

Beraz, herrialde horietako gobernuek, enpresa-erabakietan eta jendearen iritzietan eraginez, merkatuen berrikuntza eta iraunkortasuna sustatu eta aldatetarako bideratzeko ahalmen handia dute. Horrenbestez, gobernu horiek beren erakundeek erosketak ikuskatu beharko lituzkete, ahal den neurrian beren erosketa-politiken alde ekologiko eta soziala hobetzeko, betiere nazioarteko merkataritzaren printzipioak errespetatuz.

Artikulu honetan, garapen iraunkorraren testuinguruan, EKPrez prozesuari loturiko lege-esparruak izan duen bilakaera eta Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra (EKPI) praktikan jartzeko dauden aukerak landuko dira. Horrenbestez, lehenik eta behin, bigarren atalean Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorraren ezaugarriak azalduko dira. Hirugarren atalean, azken urteetan Erosketa eta Kontratazio Publikoa arautzen duen lege-esparruak izan duen bilakaera jasoko da. Hurrengo atalean, Erosketa eta Kontratazio Publikoaren prozesuan iraunkortasun-printzipioak barneratzeko aukerak bilduko dira, hots, EKPI praktikan jartzeko dauden alternatibak. Bosgarren atalean, zenbait Herri Administrazioek EKP prozesuetan iraunkortasun-irizpideak barneratuz aurrera eraman dituzten hainbat jardunbide egoki jasoko dira. Amaitzeko, azken atalean guztiaren sintesi bat jasoko da.

2. Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra (EKPI)

Modu orokor batean esanda, Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra (EKPI) iraunkortasunaren hiru dimentsioak —ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena— barneratzen dituen Erosketa eta Kontratazio Publikoaren praktika bat da. Halaxe azpimarratzen dute EKPIri buruzko definizio gehienek, baita jarraian jasotzen den eta Nazio Batuen Ingurumen Programaren barruko EKPIren lantaldeak onartu zuten definizioan ere:

Sustainable Procurement integrates requirements, specifications and criteria that are compatible and in favour of the protection of the environment, of social progress and in support of economic development, namely by seeking resource efficiency, improving the quality of products and services and ultimately optimizing costs (UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO, 2011).

Definizio horren arabera, EKPIk garapen iraunkorraren hiru zutabeen arteko oreka egokia bermatu nahi du. Ekonomia-aldagaiak izango dira ondasun eta zerbitzuek bizi-zikloan zehar duten kostu osoa: eroste-kostua, mantenua, erabilera eta bizi-amaierako kostuak (baita deuseztatzea ere). Aldagai sozialak izango dira justizia soziala eta ekitatea; segurtasuna; giza eskubideak eta lan-baldintzak. Ingurumen-aldagaiak izango dira aire-isurketak, lurra eta ura, klima-aldaketa, bioaniztasuna, baliabide naturalen erabilera eta uraren eskasia produktuen bizi-zikloan zehar.

EKPI zeharkakoa den heinean, arlo askotan eragingo du. Hots, berotegi-efektua eragiten duten gasen isurketak murriztu ditzake edo aire-kutsatzaileak, energia eta uraren eraginkortasuna hobetu, zaborra murriztu, berrerabilera eta birziklapena bultzatu, baliabide berriztagarrien erabilera sustatu edo teknologia garbiagoen garapena eta erabilera bultzatu. Eragin sozial positiboak ere izan ditzake pobrezia erazketa, genero- eta etnia-ekitatea edo oinarritzko lan-baldintzak bermatzen dituen neurrian. Ekonomia-arloari dagokionez, EKPIk diru-sarrerak sortu, kostuak murriztu eta trebetasunak eta teknologiaren transferentzia susta ditzake, merkatuak irtenbide berritzaileetara bideratzen dituen bitartean.

Beraz, EKPI erabaki politikoak praktikan jarri eta betetzeko tresnatzat har daiteke, hau da, garapen iraunkorraren alde eraginkortasunak eta berrikuntzak hobetzen lagungarria den tresna garrantzitsutzat. Izan ere, gobernuek duten merkatu-indarrak baliaturik ekoizleen jarrera ekonomia iraunkorrako baterantz aldaraz dezakete. Adibidez, gaur egun berrikuntza berdeen sektorea gehien hazten ari den sektorea da; EKPIren bidez, gobernuek berrikuntza berdeen hasierako fasea sostenga dezakete eta, beraz, enplegu berrien sorreran lagundu.

EKPIk gobernuek edo erakunde publikoek erosketa eta kontratazio publikoaren prozesuan ingurumen-eraginak edota eragin sozialak modu orokorrean kontuan izatea eskatzen du (Preuss, 2009; Walker eta Brammer, 2009).

Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorrari loturiko ikerketaren historia ez da luzea eta burututako lanak bi multzo handitan bereiz daitezke. Alde batetik, EKP jardueren bidez modu zuzen batean lortzen diren helburu sozial eta ingurumenekoak aztertzen dituztenak daude, eta, bestetik, EKP prozesuek eragiten dituzten zeharkako eraginak neurtzen saiatzen direnak.

Lorpen zuzenei loturiko azterketak oso urriak badira ere (Brammer eta Walker, 2011), badago iraupen luzeko langabezia murrizteko Ipar Irlandan erosketa eta kontratazio publikoan oinarrituriko proiektuaren eragina jasotzen duen Erridge eta Henningan-en *Public Procurement and Social Policy in Northern Ireland: The Unemployment Pilot Project* (2007) lan bat, zeinetan EKPI bidez helburu sozialak, kasu honetan iraupen luzeko langabetuak murriztea, lortzea posible dela ondorioztatzen den. Zehatzago esateko, Ipar Irlandan 2002. urteko erosketa eta kontratazio publikoaren politika berrituak gobernuen erosahalmenaz baliaturik luzaroan langabeturik daudenei enplegu-aukerak sortzea gomendatzen zuen. Testuinguru horretaz baliaturik, alde batetik, Ipar Irlandako Asanbladako kideen babes politiko handiarekin eta, bestetik, erosketa eta kontratazioen arduradun zein hornitzaileen aldetik ere begi onez ikusi zuten probako proiektu bat onartu zen, North Ireland Unemployment Pilot Project (NI UPP). Kontuan izan behar da Ipar Irlandak Erresuma Batuko gainontzeko erregioek baino langabezia-tasa altuagoa pairatu izan duela eta probako proiektu hori aipatutako desoreka gainditzeko aukera moduan ikusi zen; izan ere, sektore publikoa azpiegitura-inbertsio esanguratsuak burutzen ari zen bertan. Proiektu horretan parte hartzeko baldintzetako bat hau zen: hornitzaileek beren eskaintzetan enplegu-plan bat aurkeztu behar zuten zeinak derrigorrez luzaroan langabeturik zeuden pertsonen enplegua eskaintzeko zer urrats emango zituzten zehazten zuen, eta proiektua aurrera eramateko enplegu-plan hori aplikatzea ezinbestekoa zen. Kontrako kasuan, kontratua bertan behera geratuko litzateke. NI Unemployment Pilot Project bitartez 51 langabetu kontratatu ziren eta proiektua amaitu ostean 46 pertsonak kontratatuta jarraitzen zuten.

1. taula. EKPrez zeharkako eraginak aztertzen dituzten artikuluko batzuk.

Egileak	Urtea	Azterketa-eremua	Izenburua
Faith-Ell <i>et al.</i>	(2006)	Eraikuntza	The application of environmental requirements in Swedish road maintenance contracts
Hall & Purchase	(2006)	Eraikuntza	Building or bodging? Attitudes to sustainability in UK public sector housing construction development
Matthews & Axelrod	(2004)	Informazio-teknologia (IT)	Whole life considerations in IT procurement
Rimington <i>et al.</i>	(2006)	Elikagaiak	Corporate Social Responsibility and sustainable public procurement
Morgan	(2008)	Elikagaiak	Greening the Realm: Sustainable Food Chains and the Public Plate
Bull <i>et al.</i>	(2001)	Egurak eta basoko produktuak	Wood procurement policy: an analysis of critical issues and stakeholders

Iturria: egileak egina.

EKPrekin loturiko ikerketa gehienak, ordea, EKPIren bidez hornitzaileei mezuak igorri lortzen diren zeharkako eraginei buruzkoak dira eta, oro har, ikuspegi sektoriala dute (Brammer eta Walker, 2011). Taulan, adibide moduan, eraikuntza, informazio-teknologia, elikagaiak eta egurra bezalako produktuen merkatuetan EKPI bidez eragindako zeharkako ondorioak aztertzen dituzten artikulua jasotzen dira.

3. Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorraren lege-esparruaren bilakaera azken urteetan

Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorrari loturiko lege-esparrua hiru mailatan sailka daiteke; hau da, alde anitzekoa, erregionala eta nazio-mailakoa. Lehenengo mailan, Gobernuen Erosketa eta Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa (Agreement on Government Procurement, GPA) izango dugu, Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) alde anitzeko akordioa eta erosketa eta kontratazio publikoari buruzko akordio multilateral bakarretakoa dena. Bigarren mailan, erosketa eta kontratazio publiko iraunkorra ahalbidetu duten merkataritza-akordio eta inbertsio-itun erregionalak daude. Hirugarrenik, nazio-mailako lege-esparrua bereizten da.

3.1. Nazioarte-mailako lege-esparrua

Nazioarte-mailako akordio eta elkarte gehienek gobernuen erosketa- eta kontratazio-esparruaren gardentasuna bermatu nahi izan dute nagusiki. Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra bere horretan ez aipatzeak anbiguitasuna eragin du baliozkotasun legalari eta politika-neurrien garapen eta aplikazioari dagokienez. Anbiguitasun hori oztopo izan daiteke, gobernuak Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra garatzerakoan nazioarte-mailako betebeharrak urratuko dituzten beldur izan daitezkeen neurrian.

Kontuan izan behar da ezen ondasun eta zerbitzuen kontratazio publikoak herrialde baten merkatuaren zati esanguratsua ordezkatzeko duela, ondorioz, erosketa eta kontratazio publikoak nazioarteko merkataritzarentzat merkatu garrantzitsua da. Zentzu horretan, gardentasunaren printzipioa, hau da, kontratu publikoari buruzko informazioaren eskuragarritasuna, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio egokia lortzea eta hornitzaileek aukera ekitatiboak izatea, hots, lehiakortasun eraginkor eta bidezkoaren printzipioak nazioarte-mailan lortzea garrantzitsua da. Aitzitik, hasiera batean, erosketa eta kontratazio publikoak Merkataritzari eta Aduanako Tarifei Buruzko Akordio Nagusi (GATT) eta Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) testuinguruko merkataritza-akordio multilateraletik kanpo geratu zen, harik eta 1994. urtean Gobernuen Erosketa eta Kontratazioari buruzko Akordioa (GPA) sinatu eta 1996. urtean indarrean sartu zen arte. GPA borondatezkoa da¹ eta bi helburu nagusi ditu; batetik, erosketa eta kontratazioaren gardentasuna bultzatzea (*Artículo XVII: Transparencia, Acuerdo sobre Contratación Pública*) eta, bestetik, diskriminazio ezaren printzipioaren aplikazioa bermatzea (*Artículo III: Trato nacional y no discriminación, Acuerdo sobre Contratación Pública*).

1. MME osatzen duten 150 herrialdeetatik 41ek bakarrik sinatu dute akordioa: AEB; Armenia; EB-27; Hong Kong; Txina; Islandia; Israel; Japonia; Kanada; Korea; Liechtenstein; Norvegia; Singapur; Suitza; Taipei Txinatarra.

Aipatu behar da GPAk ez duela EKPI auzia bere horretan lantzen, baina MME Akordioaren hitzaurrean garapen iraunkorra helburu moduan jasotzen duen heinean eta GPA MME Akordioaren esparru zabalagoaren zati bat denez, EKPI praktikak GPA testuinguruan erabat zilegi lirateke. Zentzu horretan, zehaztapen teknikoaren zatia adierazgarria da. Ekoizpen-prozesu eta -metodoei buruzko erreferentzia zuzenak jasotzen dituen VI. artikuluan, argi asko eskakizun iraunkorrak jasotzeko aukera ahalbidetzen du, etiketa edo ekoizpen-prozesu edo -metodoetan oinarriturik. Are gehiago, erosketa eta kontratazio publikoaren arduradunek agindutako eskakizun teknikoak ezaugarrien deskribapenean ez baizik eta gauzapeanean oinarritu beharko liratekeela proposatzen du. Betiere, eskakizun teknikoetan ondasunen iraunkortasun-portaera kontuan izatea eskatzeak merkataritzari oztoporik jarri gabe:

Technical specifications laying down the characteristic of the products or services to be procured, such as quality, performance, safety and dimensions, symbols, terminology, packaging, marking and labelling, or the processes and methods for their productions and requirements relating to conformity assessment procedures prescribed by procurement entities, shall not be prepared, adopted or applied with the view to, or with the effect of, creating unnecessary obstacles to trade (*Article VI: Technical Specifications, Agreement on Government Procurement*).

3.2. Europar Batasuneko lege-esparrua

Maila erregionalean, Europar Batasuna, EKPIren sustatzaile garrantzitsua izan da azken urteetan. 1990eko hamarkadan, ingurumen-irizpideak kontratazio-pleguetan sartzeko aukera eta egokitasunari buruzko eztabaida sortu zen, baita irizpide horiek baldintza-orrietako zenbait ataletan sartzeko moduari buruzkoa ere.

Hasierako ezjakintasunak eraginda, ingurumen-irizpideak barneratu zituzten kontratu publikoen aurkako helegiteak jarri ziren eta Europako Erkidegoko Justizia Auzitegiak (EEJA) erabaki behar izan zuen estatu-mailako Herri Administrazioek ingurumen-irizpideak nola sartu behar zituzten erosketa eta kontratazio publikoetako deialdietan Europar Batasuneko Zuzenbidea urratu gabe. Zentzu horretan, aipagarriak dira EEJAren ondorengo bi epaiak:

- EEJAren Epaiak, 2002ko irailaren 17koa, C-513/99 auzian (*Korkein hallinto-oikesusek* epaitu aurreko erabakia eskatu zuen): Concordia Bus Finland Oy Ab vs Helsingin kaupunki, HKL-Bussiliikenne.
- EEJAren Epaiak, 2003ko abenduaren 4koa, C-448/01 auzian (Bundesverergabeamten epaitu aurreko erabakia eskatu zuen): EVN AG, Wienstrom GmbH vs Republik Österreich.

Aurreko bi epaien artean entzutetsuena lehena izan zen, «Helsinki Bus Case» izenez ere ezagutzen dena, zeinaren bidez EEJAK garbi zehaztu zuen ingurumen-alderdiak txertatzeko prozedura juridikoak nolakoak izan behar zuten.

Urte batzuk geroago, kontratazio publikoari buruzko Europako Zuzentarauak garatu eta onartu ziren. Hain zuzen ere, 2004/17/EE Zuzentzaraua, 2004ko martxoaren 31koa, uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratuak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa eta 2004/18/EE

Zuzentaria, 2004ko martxoaren 31koa, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa diren zuzentariak zeintzuetan zehaztasun osoz adierazten den nola integra daitezkeen iraunkortasun-eskakizunak kontratu publikoetan.

EKPI batik bat 2004/18/EE Zuzentariak arautzen dituen kontratuei loturik agertzen da, zuzentariak espresuki onartzen du ingurumen-irizpideak eta irizpide sozialak erosketara eta kontratazio publikoan barneratzea. Betiere, Europar Batasuneko Itunaren oinarriko askatasunak errespetatzen badira, hots, salgaien mugimendu-askatasuna eta zerbitzuak emateko askatasuna, diskriminaziorik eza, bidezko tratua, proportzionaltasuna eta gardentasuna.

Aurreko bi zuzentarietan, iraunkortasun-eskakizunak barneratzeko aukerak jasotzen dira, baina Herri Administrazioarentzat borondatezkoa izango da mota horretako eskakizunak dituzten ondasun eta zerbitzuak eskuratzea. Bost urte beranduago, urrats bat gehiago eman zen garraioaren arloan. Horrela, 2009/33/EE Zuzentariak, energetikoki eraginkorrak diren errepide bidezko ibilgailu garbiak sustatzeari buruzkoak, erosketara-arduradun publikoak derrigortzen ditu ibilgailuek bizi-ziklo osoan eragingo dituzten energia- eta ingurumen-eraginak kontuan hartzera, besteak beste, energetikoki eraginkorrak eta garbiak diren ibilgailuen merkaturara sustatu eta bultzarazteko helburua duela nabarmenduz.

3.3. Espainiako estatuko lege-esparrua

Espainiako estatuko araudian, aipaturiko zuzentariak, lehenengo aldiz 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuena eta 31/2007 Legea, urriaren 30ekoa, ur-, energia- eta posta-zerbitzuen sektorean kontratatze prozedurena indarrean sartzearekin batera barneratu ziren. Bi lege horiek berariaz jaso zuten kontratazio publikoan ingurumen- eta gizarte-alderdiak sartzeko aukera. Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeak hitzez hitz jaso zuen 2004/18/CE Zuzentariaren edukia eta, labur esanda, beritasun nagusiak kontratazio publikoan gizartearekin eta ingurumenarekin zerikusia zuten eskakizunak sartzera baimentzen zuten mekanismoekin zeuden lotuta, kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa edota eskaintzak baloratzeko irizpide gisa. Horrela, kontratuak eskakizun etiko eta sozial berrietara egokitzeko aukera ematen zuten; hala nola zerbitzuak herrialde azpigaratuekin edo garapen-bidean daudenekin «bidezko merkataritza» egiteko moduan eskatzea, Europako Parlamentuaren Bidezko Merkataritzarako eta Garapenerako Ebazpenak aurreikusi zuen bezala (2005/2245 INI).

Urte batzuk geroago, 3/2011 Legegintzako Errege-dekretua, azaroaren 4koa, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onetsi zen. Bertan, 118. artikulua kontratuaren betetze-baldintza bereziak jasotzen ditu. Esaterako, erakunde kontratatzaileek kontratuaren agiri berezietan ingurumeneko, gizarteko zein beste politika publiko batzuei loturiko betetze-baldintza bereziak jaso ditzaketek. Bereziak, ingurumena eta laneko osasuna babesteko, lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzeko eta merkatu horretan emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko, langabeziari aurre egiteko, lantokiko prestakuntza errazteko, edo kontratazio-organoak egoki irizitako beste helburu batzuetarako: Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 145. artikuluan zehazturiko enplegurako estrategia koordinatuari dago-

kiona edo ekoizpen-katean zehar oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzeko, Lanaren Nazioarteko Erakundearen lan-baldintzei buruzko 94. Hitzarmena eta 84. Gomendia betearaziz.

3/2011 Legegintzako Errege-dekretuaren 150. artikuluan, eskaintzak baloratzeko irizpideei buruzkoan, eskaintzak konparatzerakoan, ardatz moduan bi irizpide proposatzen dira: preziorik baxuena edo ekonomikoki onuragarriena den eskaintza. Lehen kasuan, erabakia eskaintako prezioaren arabera hartuko da. Irizpide hori derrigorrezkoa izango da, hautatzeko irizpide bakarra erabiltzen den kasuetan. Dena dela, kontratua hainbat irizpideren arabera esleitzen denean, prezioaz gain aintzat har daitezkeen elementuak dira: kalitate-irizpideak, entregaepea, erabileraren kostua, ezaugarri sozial eta ingurumenekoak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta kostua, mantentzea, asistentzia teknikoa, salmenta osteko zerbitzuak edo antzekoak. Kasu horretan, ekonomikoki onuragarriena den kontratuari egiten zaio esleipena. Bigarren aukera hau erabiltzen denean, prozesuen garrantasuna bermatzeko, kontratazio-pleguan eskaintzak ebaluatzeko eta kontratua esleitzeko kontuan izango diren irizpideak zehaztu behar dira.

Erosketa eta Kontratazio Publikoarekin agintari publikoek iraunkortasunaren aldeko jarrera erakusteko aukera gehiago ere jasotzen dira 3/2011 Legegintzako Errege-dekretuaren xedapen gehigarrietan. Horrela, laugarren xedapen gehigarrian, desgaitasunak dituzten langileak dituzten enpresa eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin kontratatuari buruzkoan, erakunde kontratatzaileek administrazio-klausula berezien agirian esleipen-lehentasunak zehaztu ditzakete plantillan desgaitasunen bat duten langileak % 2tik gora dituzten enpresen alde, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak sustatu eta laneratzen dituzten enpresen alde edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako proposamenen alde. Lehentasunak aplikatzeko, enpresa edo erakunde horiek eta beraien proposamenek legeria horretan lehentasuna aplikatzeko ezarritako baldintzak bete behar dituzte; besteak beste, proposamen horiek esleipenerako oinarri gisa balio duten irizpideen ikuspegitik onuragarrienak direnen parekoak izatea.

Bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, Erreserbatutako kontratuei buruzkoa, Lanerako Zentro Bereziei edota babestutako lan-programen esparruan gauzatu beharreko esleipen-prozesuetan zenbait kontratu gordetzea zilegi da, baldin eta eragindako langileriaren % 70 gutxienez desgaitasun bat duten pertsonak badira eta haien desgaitasunaren garrantziagatik edo larritasunagatik jarduera profesional bat baldintza normalean garatzea ezinezkoa badute.

3.4. Euskal Autonomia Erkidegoko lege-esparrua

Euskal Autonomia Erkidegoan, Jaurlaritzaren idazkaritzako eta Legebiltzarrearekiko Harremanetarako zuzendariaren 6/2008 Ebazpenak, ekainaren 2koak, Jaurlaritzaren Kontseiluak Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte-irizpideak eta ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeko erabakia jasotzen du. Printzipioz akordio hori Eusko Jaurlaritzari, bere erakunde autonomoei eta sozietate publikoei bakarrik aplikatuko zaie, baina gainerako administrazioetan gara litezkeen jardueratarako erreferentzia izan daiteke.

Legezkoa ez den proposamen horren bidez, Eusko Jaurlaritzari kontratazio publikoa erabiltzeko eskatzen zaio gizarte-bazterkeriari aurre egiteko, desgaitasunak dituzten pertsonak edo lana lortzeko zailtasunak dituzten pertsona bereziak lan-mundura sartzeko bitarteko eraginkor bezala, baztertuta geratzeko arriskua gutxitzen lagun dezan.

Horretarako, kontratazio-prozeduran eta kontratua betetzean klausula sozialak barne hartzeko aukera aztertzea eskatzen da; baita ingurunea, laneko segurtasuna eta osasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta laneko kalitatea eta baldintzak beste politika publiko batzuekin batera egotea ere.

Amaitzeko, gehitu behar da gaur egungo ingurumen-politikako plan eta programak, berrikuntza-politikak eta klima-aldaketaren aurkako politikak kontuan hartuta EKPI erabat bideragarria eta legezkoa dela Europar Batasuneko kontratazio-araubidean, eta, horrez gain, Herri Administrazioen helburua ere bada, Europar, estatuan, autonomia-erkidegoan eta udalerrietan.

4. Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra praktikan

EKP prozesuak hainbat fase ditu eta ingurumen-eskakizunak zein eskakizun sozioekonomikoak erosketa eta kontratazio publikoaren urrats guztietan kontuan har daitezke: kontratuaren xedean, zehaztapan teknikoetan, lizitatzailleak hautatzeko irizpideetan, kontratua esleitzeko irizpideetan eta kontratua gauzatzeko klausuletan.

Kontratuaren xedean Herri Administrazioak erosi edo kontratatu behar duena zehazten da, hau da, balizko lizitatzailleei administrazioaren beharra adierazten die eta eskaintza egin edo ez erabakitzen laguntzen die. Beraz, kontratazio-prozesuan alderdi sozial edo ekologikoa kontuan hartzeko modurik azkarren eta gardenena kontratuaren xedean bertan adieraztea da.

Baina, kontratuari izenburu iraunkorra jartzea ez da nahikoa. Iraunkortasun-eskakizunak zehazten diren fasea, zehaztapan teknikoaren fasea, ere oso garrantzitsua da erosketa eta kontratazio publikoaren prozesuaren bidez diruaren baliorik onena bermatu eta emaitzarik iraunkorrena lortzeko (UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO, 2011: 45).

Zehaztapan teknikoak bi motatakoak izan daitezke: alde batetik, produktuek, zerbitzuek edota lanek bete beharreko *derrigorrezko gutxieneko baldintzak* zehazten dituztenak daude. Eskaintzaren batek baldintza horiek betetzen ez baditu, prozesutik kanpo geratuko da. Bestetik, kontratua esleitzeko baldintza baloragarriak zehaztu daitezke. Gutxieneko baldintzetatik haratago doazen ezaugarriak baloratzeko aukera onesten bada, esleipen-fasean baloratuko dira. Edozein kasutan, EKP arduradunak zehaztapan teknikoak definitzean etiketa ekologiko edota etiketa sozioekonomikoetan oinarritu daitezke.










Etiketa ekologikoak eta haien ezaugarri nagusiak International Standards Organisation (ISO) sailkapenaz baliaturik bereiz daitezke. Zehatzago esateko, ingurumenaren ikuspegitik iraunkorra den kontsumoari buruz gizartearen eta merkatuaren arteko komunikazioa errazteko asmoz, *ISO 14020: Etiketa Ekologikoak*

eta ingurumen-adierazpenak. Printzipio orokorrak nazioarteko araudiaren arabera hiru multzotan sailkatu dira etiketa ekologikoak:

- I motako etiketak (ekoetiketak). Organismo publikoek edo ospea aitortua duen erakunde batek egiaztatutako etiketak dira eta ISO 14024 arauaren zehaztapenen arabera irizpide ekologikoak bete direla bermatzen dute. Eskatutako irizpideak produktuaren bizi-ziklo osoari aplikatzen zaizkio: energia eta baliabideen erabilera, isurketa kutsatzaileak, hondakinen suntsiketa eta ekosistemen gaineko eragina. Hurrengo 2. taulan, adibidez, mundu-mailan nagusiak diren etiketa ekologikoen zerrenda jasotzen da².
- II motako etiketak (ingurumen-autoadierazpenak) ISO 14021 arauak erregulatzen ditu eta erakunde pribatu nazional eta nazioartekoek diseinatzeko dituzte euskarri moduan ingurumenari buruzko arautegia erabiliz.
- III motako etiketak (produktuaren ingurumen-adierazpenak). ISO 14025 arauak erregulatzen ditu eta ISO 14020 arau-multzoak arautzen dituen beste bi etiketa motetan ez bezala, III motako etiketen kasuan, ez dira definitzen bete beharreko gutxieneko ingurumen-eskakizunak edo -balioak. Ingurumen-alderdi batzuk identifikatzen dira, horiei buruzko informazioa emateko eta, era horretan, ingurumen-portaerari buruzko irudi bat eskaini ahal izateko. Era guztietako ikurrak sartzen dira hemen, hala nola «paper ekologikoa», «klororik gabea», «ez du ozonoko geruzan eraginik», «ingurumenaren laguna».

2. Aipatu, mundu-mailako etiketa ekologikoa duten produktu-kategorien zerrenda osatuagoa <www.globalecolabelling.net/categories_7_criteria/> helbidean kontsulta daiteke. Mundu-mailan existitzen diren 300 etiketa ekologikoei buruzko xehetasunak, berriz, <www.ecolabelindex.com/ecolabels> helbidean aurki daitezke.





2. taula. Mundu-mailan ezagunenak diren etiketa ekologikoak.

Mota	Herrialdea / eskualdea	Sinboloa	Izena	Organismo eskuduna	Deskribapena
I-mota	Europa		European Flower	Europako Batzordea	28 produktu-kategoria biltzen ditu: margoak, garbiketa-produktuak, papera...
I-mota	Norvegia, Finlandia, Islandia, Suedia eta Danimarka		Nordic white Swan	Eskandinaviako kontseilua (Nordic ecolabelling)	65 produktu-kategoria biltzen ditu: garbiketa-produktuak, papera, eraikuntzarako materialak...
I-mota	Alemania		Blue Angel	Alemaniako Ingurumen Ministerioa	70 produktu-kategoria biltzen ditu: pintura, papera, telefonoak...
I-mota	Japonia		Eco Mark Program	Eco Mark Office, Japan Environment Association	60 produktu-kategoria biltzen ditu: papera, tonerrak, arropak...
I-mota	Txina		China Environmental Labelling	Environmental labelling certificate center of SEPA	50 produktu-kategoria biltzen ditu: energia aurrezten duten produktuak, altzariak, aerosolak...
I-mota	Thailandia		Thai Green Label	Thailand Environment Institute	40 produktu-kategoria biltzen ditu: garbikariak, ordenagailuak...
I-mota	AEB		Green Seal	Green Seal Inc.	30 produktu-kategoria biltzen ditu: margoak, aire giroturako sistemak...
I-mota	Malaysia		SIRIM Eco-labeling Scheme	SIRIM QAS international	29 produktu-kategoria biltzen ditu: zaintza-zerbitzua, eraikuntzarako materialak...
I-mota	Brasil		Rótulo Ecológico (ABNT)	Associação Brasileira de Normas Técnicas (ABNT)	7 produktu-kategoria biltzen ditu: zaintza pertsonala, arropa...

Iturria: egileak moldatuta, *Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua* (IHOBE, 2011) eta *Buying for a Better World* (UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO, 2011) txostenetan oinarriturik.

Etiketa sozialek gai sozioekonomiko desberdinak kontuan har ditzakete: giza eskubideak, langileen eskubideak, umeen lanaren erabileraren debekua, garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizleei egindako bidezko ordainketa, etab. Etiketa batzuek gai sozialak eta ingurumenekoak ere kontuan izaten dituzte. Etiketa ekologikoen kasuan bezala, etiketa sozial batzuk gai konkretu bakarrean zentratzen dira eta beste batzuek ikuspegi zabalagoa dute. Baina, etiketa sozialak ez dira ingurumen-etiketak bezainbeste ugaritu. Hala ere, azken urte hauetan zenbait agertzen hasi dira. Hurrengo taulan adibide batzuk jaso dira.

3. taula. Mundu-mailan ezagunenak diren etiketa sozialak.

Sinboloa	Izena	Deskribapena
	Fairtrade Labelling Organizations	Produktuek bidezko merkataritzaren estandarrak betetzen dituztela bermatzen du, baita desabantailak dituzten ekoizle eta langileen garapenean laguntzen dutela ere.
	Rugmark	Alfonbren ekoizpenean umeen eskulan ilegala ez dela erabiltzen ikuskatu eta ziurtatzen du.
	Le Label Social Belge	Eskaintza-katean zehar LANEren Core Conventions direlakoak ziurtatzen ditu.
	Rainforest Alliance	Faktore ekologiko, ekonomiko eta sozialak kontuan hartzen dituen kontserbazio-tresna bat da.

Iturria: egileak moldatuta, *Buying for a Better World* (UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO, 2011) txostenean oinarriturik.

Aipatu diren etiketez gain, zehaztopen teknikoak estandar teknikoari, ekoizpen-metodoari, prestazio- edo funtzionaltasun-eskakizunari edota aldagaien erabilerrari buruzko informazioan oinarritu daitezke.

Azpimarratu behar da ezen, eskakizun sozioekonomikoak barneratu nahi direnean, prozesuaren arduradunen erronkarik handienetako bat dela horiek ondo justifikatzea. Esate baterako, EKP bidez administrazio batek kafea erosterakoan «bidezko» modu batean ekoizitakoa nahi badu, asmo hori kontratuaren tituluan jaso beharko du. Adibidez «bidezko merkataritzako kafearen erosketa» moduko tituluz baliaituz.

Hurrengo urratsean, hornitzaileak aukeratu behar dira. Hautaketa-irizpideen bidez, lizitatzailak kontratua gauzatzeko gaitasun finantzariarik eta teknikorik duen erabakiko da. Arrazoiren batengatik zehaztutako hautaketa-irizpideren bat edo gehiago betetzen ez duen hornitzailea prozesutik kanpo geldituko da.

Erosketa eta kontratazioaren hurrengo fasea kontratuaren esleipen-fasea da. Hautaketa-irizpideak eta derrigorrezko baldintzak, zehaztopen teknikoak, betetzen ez dituzten lizitatzailen proposamenak baztertu ondoren, gainontzeko eskaintzak irizpide objektiboen arabera alderatuko dira eta horien artean egokiena aukeratuko da. Eskaintzak alderatzeko bi irizpide har daitezke oinarritzat: preziorik baxuena edo ekonomikoki onuragarriena den eskaintza. Lehenengo irizpidea erabiltzen bada, erabakia eskaintako prezioaren arabera hartuko da.

Baina, sarritan, irizpide sozial edo ekologikoak sartu edo ez sartu, kontratua hainbat irizpideren arabera esleitzen da eta ez eroste-prezioaren arabera bakarrik. Kontuan hartzen diren beste elementuak dira: kalitate-irizpideak, entrega-epeak, hobekuntza teknikoak, ingurumen-hobekuntzak, etab. Kasu horretan, ekonomikoki onuragarriena den kontratuari egokitzen zaio esleipena, hau da, administrazioarentzat ekonomikoki errentagarriena den eskaintzari. Aukera hau erabiltzean,

prozesuaren gardentasuna bermatzeko kontratuaren baldintza-orrietan eskaintzak ebaluatzeko eta kontratua esleitzeko kontuan izango diren irizpideak zehaztu behar dira. Gainera, derrigorrezkoa da irizpide horien haztapena adierazi eta handienetik txikienera zerrendatzea, eta iraunkortasuna aintzat hartzen duten esleipen-irizpideek kontratuaren objektuarekin loturik egon behar dute eta neurgarriak izan behar dute, alegia, ezin dira subjektiboak izan.

Azkenik, administrazioak kontratua gauzatzeko klausula bereziak ezar ditzake, hau da, kontratua gauzatzeko moduari buruzko irizpideak. Baldintza hauek ez dute inongo eraginik esleipen fasean, beraz, ez da inongo egiaztagiririk eskatuko baina prozesuaren hasieratik eman behar dira ezagutzera nahiz eta kontratua gauzatzeari buruzkoak diren.


Pixkanaka, Europar Batasuna eta hango estatu kide gehienak Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde (EKPB) edo Iraunkorrerako ereduak edo nazio-mailako ekintza-planak³ garatuz joan dira: 2010eko ekainerako 21 estatu kidek onartu zuten eta gainerakoak —Bulgaria, Errumania, Estonia, Grezia, Hungaria eta Irlanda— prestatzen ari ziren.

Dena dela, bakoitzaren garapen-maila eta jarraitutako ereduak ez dira berdinak. Azpimarratu behar da ezen hasiera batean argitaratu ziren EKPI nazio-mailako ekintza-planek batik bat ingurumenaren gaineko eragina murrizteko asmoa zutela, hau da, Erosketa eta Kontratazio Publiko Berde (EKPB) mugatu ziren. Baina, duela gutxi garatu diren hainbat herrialdeko nazio-mailako ekintza-planetan erosketa eta kontratazio publikoen prozeduretan eskakizun sozialak ere kontuan hartzen hasi dira. Horien artean daude, Austria, Belgika, Danimarka, Frantzia, Alemania, Herbehereak eta Erresuma Batua. Europar Batasunak gidaliburu moduan *Buying Social. A Guide to Taking Account of Social Considerations in Public Procurement* (2010) argitaratu du.

Beraz, ez da harrizkoa momentuz EKPIk prozesu gehienetan ingurumen-eskakizunak bakarrik eskatzea. Eskakizun sozialen presentzia oraindik ere txikiagoa da ondorengo irudian ikus daitekeen moduan.

3. EB27ko herrialde bakoitzaren egoerari buruzko informazio eguneratua hurrengo orrialdean aurki daiteke: <http://ec.europa.eu/environment/gpp/action_plan_en.htm>.

1. irudia. EKPI ekimenak iraunkortasun-eskakizun motaren arabera.



Iturria: egileak egina, *SPP in EU Member States: Overview of government initiatives and selected cases* (Steurer, Berger, Konrad eta Martinuzzi, 2007) txostenean oinarriturik.

Horrez gain, eredu bera garatu duten kasuetan produktu talde bakoitzarentzat irizpide desberdinak zehaztu dira eta horrek ondasun berde edo iraunkorren merkatuan izan duen eragina ez da hasieran batean bilatzen zena. Izan ere, ekoizle edo hornitzaileak estandar desberdinak bete behar baititu estatu kide bakoitzean.

5. Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorrari loturiko hainbat jardunbide egoki

Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorrari loturiko jardunbide egokiak asko ugaritu dira azken urteotan. Jarraian, hautatutako jarduera egoki batzuk jaso diren arren, gehiago eta xehetasun argiagoekin IHOBEn, ICLEI eta EB erakundeen web orri espezializatuetan aurki daitezke.

5.1. Haurrak esplotatzen ez dituzten lizitatzailerik Bavarian

2008. urtetik, Bavariako (Alemania) estatu-gobernuek ez dute LANEren 182. hitzarmena urratzen duen lizitatzailerik onartzen. Izan ere, Bavariako gobernuaren arabera, Alemaniako Konstituzioak babestutako giza duintasunaren aurkako eraso da haur-esplotazioa. Beraz, lehiaketa publikotik kanpo uzten ditu lanerako haurrak erabiltzen dituzten enpresak eta erakundeak eta, horrez gain, lizitatzailerik ez-fidagarritzat jotzen dira. Bavariar estatuko administrazio-arauen arabera, lizitatzailerik frogatu egin behar du azpikontratatuta dituen enpresek eta hornitzaileek ez dutela haurrik esplotatzen. Era horretan, Bavariak ekoizpen-kate osoari ematen dio garrantzia, eta beste estatu-gobernu batzuentzat eredu izan daiteke.

5.2. Elikadura ekologikoa Erromako eskola publikoetan

Italiako eskoletan milioi bat otordu ekologiko zerbitzatzen dira urtero, eskola-otordu guztien laurden bat gutxi gorabehera. Erromako eskoletan jangeletako otorduetan elikadura ekologikoa eskainiz, nekazaritza ekologikoa, elikadura-segurtasuna eta dieta orekatuak bermatzeaz gain, egungo eta etorkizuneko hornitzaileak ingurumena babesten duten jardueratara bideratu nahi dira. Zentzu

horretan, Erroman «Alla hor Quality food» programa 2001. urtean indarrean jarri zen eta 2010. urtean ingurumen-irizpideak barneratzea erabaki zen elikagaiak erosi eta jangela-zerbitzuak kudeatzerakoan. Eskaintzen diren elikagaien (haragia eta arraina izan ezik) % 69k jatorri ekologikoa du. Elikagai ekologikoen aldeko apustuak otorduen kostua % 8 (0,40 €) garestitu badu ere, hornitzaileek seriozki hartu dute administrazio publikoaren eskakizuna eta beren jarduera egokitu egin dute ekoizpen ekologikoago baterantz bideratuz.

5.3. Suitzak «bidezko ordenagailuak» erosteko lehen pausoak eman ditu

Berna, Biel, Geneva, Lausana, Zurich eta Zug hiriek estrategia bat garatu dute, erabilera publikorako informatika-ekipoak erostean, erantzukizun sozial eta ekologikoz jokatzeko. Horrez gain, hiri horietako batzuek *Fastenopker* eta *Brot für alle*⁴ erakundeek hitz eman diete ordenagailu publikoak erostean, kontsumo iraunkorrerako arauak aintzat hartuko dituztela.

5.4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko klausula Gipuzkoako Foru Aldundian

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak, 2011ko ekainaren 21ean, hartutako erabakian erosketak eta kontratazio publikorako prozesuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko klausulak barneratzeko jarraibideak jasotzen dira. Onartutako jarraibideko klausula horiek derrigorrez bete beharrekoak dira generoaren ikuspuntua garrantzitsua bada, bai kontratuaren xedeari dagokiolako, bai garrantzia hori beste modu batera agertzen delako.

5.5. Udalerrri txikietan erosketak eta kontratazio publiko berdea

Vorarlberg Austriako estaturik txikienetakoa da (2.6041 km²). Lau barruti politikok eta 96 komunitatek (udalerririk) osatua, 375.000 biztanle inguru bizi dira.

Komunitate horietan erosketak egiteko zerbitzu zentralizatu eta espezializatuak jarri dute martxan, Erosketa Zerbitzu Ekologikoa (OekoberschaffungServiceOeBs izenekoa) eta Umweltverband Vorarlberg izeneko tokian tokiko elkarte batek eskaintzen du. Zerbitzu hori martxan jarri izana hiru arrazoik bultzatu dute: Batetik, erosketa-prozesuan komunitate horiek garapen iraunkorreko irizpideak txertatzeko azaldu duten borondatea. Bigarrenik, kontratu publikoak esleitzeko prozedura korapilatsuak eta, azkenik, udalerrri txikiak halako ekimenak martxan jartzeko daukaten baliabide-falta.

Udalerriek zerbitzuaren esku uzten dituzte erosketak. Aurrez, ordea, enpresa hornitzaileekin kontratuak kudeatzeko beharrezko konpetentziak eman zaizkio. Erosketa-prozesu osoa kudeatzen dute: baldintza-agirien publikazioa, erosketen kudeaketa, erosketen harrera eta banaketa. Zerbitzua udalerriek finantzatzen dute (parte-hartzea borondatezkoa da); udalerrri bakoitzak ordaindu beharrekoa eragindako erosketen eta biztanleen arabera zehazten da, proportzionaliki. Bestalde,

4. *Fastenopker* eta *Brot für alle* erakundeek teknologia aurreratuko ordenagailuak ekoizten dituzten emakumeen lan-baldintza eskasak salatzearekin batera LANEren hitzarmenak betetzea eskatu dute «High Tech – No Rigths?» kanpainaren bidez. Xehetasun gehiago hurrengo helbidean: <<http://www.fair-computer.ch/cms/index.php?id=187>>.

udalerriek Internet bidez, produktu berdeen katalogoa jasotzen dute; bertan, erosgai dauden produktuak eta prezioak kontsulta ditzakete, baita eskaera egin ere. Produktuak zuzenean bideratzen dira eskaera egin duen udalerrira eta, produktuak bidali ondoren, bulegotik igorritako faktura jasotzen dute.

Zerbitzuaren bitartez eros daitezkeen produktuen zerrenda oso zabala da: material informatikoa, bulegoko materiala, telefonia, altzariak, argiteria publikoko elementuak, garbiketarako produktuak, eta abar.

Erosketa-zerbitzua eskaintzeaz gain, formazio-jardunaldiak edota esperientziak trukatzeko taldeak antolatzen ditu. Era berean, tokian tokiko ekimenen antolaketan erosketa berdea sustatu nahi duten elkarteei laguntza eskaintzen die.

Zerbitzuak jarraian zehazten diren onurak ekarri ditu: 1) Erosketa publiko berdea hobeto ezagutzeko aukera eta erosketa- zein kontratazio-prozesuetan ezagutza hori aplikatzeko gaitasuna. 2) Ingurumen-irizpideak kontuan hartuta egiten diren erosketen aurrekontu publiko areagotua. 3) Kopuru handiak erostean, ondasunak eta kontsumitzeko produktuak erostean beherapen garrantzitsuak (merkatu-prezioarekin alderatuta % 20koak). 4) Giza baliabide urriak dituzten udalerrri txikiei erosketetan eta kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeko aukerak ematea. 5) Udalerriko langileek erosketak eta kontratazioak egiten ematen duten denbora murriztea. 6) Lizitazioak egitean segurtasun juridiko handiagoa izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoan Gipuzkoan dagoen Goiekik, Goierriko Garapen Agentziak, eskualdeko udalerrien eskura dagoen erosketa-zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzuak zenbait produkturen erosketa negoziatzeko ahalmena du (momentuz bulegoko materiala, gasolioa eta gatza).

Zerbitzua erabiltzen duten udalerriek bulegoko materiala prezio hobean erosten dute, erosketa-bolumena handia delako. Gatzaren kasuan, udalerriek elkarrekin erosten dute garraioaren kostua merkatzeko eta ingurumen-eragina murrizteko. Bestalde, gasolioaren kasuan, erosketa egin behar den aldiro bost hornitzailei aurrekontua eskatzen zaie, erosketa bakoitzean eskaintza onena aukeratuz.

Produktu guztiak udalerrietara eramaten dira zuzenean. Fakturazioa, berriz, udalerrri bakoitzak berea jasotzen du. Gatzaren kasua salbuespena da; faktura Goiekira iristen da eta Goiekik udalerrri bakoitzari berea igortzen dio. Garraioaren kostua, aldiz, udalerrri guztien artean ordaintzen da.

Momentuz ez dituzte erosketa berdearen irizpideak txertatu. Hala ere, zenbait kasutan garraioak eragindako gastuak optimizatu eta ingurumen-eragina murrizten da. Bulegoko materialen kasuan, udalerriek aukera daukate katalogo bidez ingurumen-eragin gutxien sortzen duten materialak aukeratzeko, esate baterako, paper birziklatua.

6. Sintesia

1992. urtean Rio de Janeiron egin zen Ingurumen eta Garapenaren Nazio Batuen Konferentzian, kontsumo- eta ekoizpen-eredu iraunkorra, garapen iraunkorra lortzeko ezinbesteko baldintzatzat onartu zen. Horrela, konferentzia

berean adostu zen Agenda 21 programaren 4. kapitulua kontsumo-ereduaren bilakaerari buruzkoa da.

Hamar urte geroago, mundu-mailako agintariek Johannesburgoko Plana sinatu zuten eta kontsumo- eta ekoizpen-eredu iraunkorrerantz joateko 10 urteko esparru-programak sustatzeko konpromisoa hartu zen. 2003. urtean konpromiso hori betetzeko asmoarekin Marrakech prozesuari hasiera eman zitzaion. Prozesu horren barruan zazpi lantalde eratu dira, horietako bat Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorriari buruzkoa da.

Beraz, ingurumenari eta gizarte-kohesioari buruzko kezka erakunde publikoen portaeran eragina izaten hasi dira. Zentzu horretan, erosketa- eta kontratazio-arduradunek hornitzaileei maizago eskatzen dizkiete ingurumen- edo gizarte-arduri buruzko egiaztagiriak eta EKPIren praktikak ugaritu egin dira azken urte hauetan.

Aipatu behar da EKPk nazioarte- zein nazio-mailako araudia bete behar duela. Horrela, 1994. urtean onartu zen eta Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) alde anitzekoa den Gobernuen Erosketa eta Kontratazio Publikoari buruzko Akordioak (GPA) nazioarte-mailako eragiketak arautzen ditu, baina ez du espresuki jasotzen EKP prozeduran iraunkortasun-printzipioak nola barneratu daitezkeen (kontrakorik ere ez da jasotzen).

Europar Batasunean aurrerapauso bat eman da zentzu horretan. Horrela, 2001. urtean Europako Batzordeak kontratu publikoari buruzko erkidegoko legeria interpretatzen duen eta kontratazio publikoan ingurumen-xehetasunak sartzeko aukerak jasotzen dituen komunikazio bat argitaratu zuen (Europako Batzordea, 2011).

Urte batzuk geroago, kontratazio publikoari buruzko araudian zegoen hutsunea bete zuten Europako Zuzentarauak garatu eta onartu ziren; hain zuzen ere, 2004/17/EE Zuzentaria eta 2004/18/EE Zuzentaria, eta haietan zehaztasun osoz jaso zen nola integra daitezkeen iraunkortasun-klausulak kontratu publikoetan.

Ondorengo urteetan, EBko estatu kide bakoitza bere lege-esparrua egokituz joan da. Espainiako estatuan 3/2011 Legegintzako Errege-dekretuan, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateratuan jasotzen dira iraunkortasun-irizpideak barneratzeko aukerak, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, berriz, 6/2008 Ebazpenean.

Azpimarratu behar da bai zuzentarauek bai legegintzako errege-dekretuak zein ebazpenak argitzen dutela nola barnera daitezkeen iraunkortasun-eskakizunak EKP prozeduraren faseetan, baina ez dute erakunde publikoa irizpide edo eskakizun horiek erabiltzera derrigortzen. Erakunde publikoaren borondatearen arabera izango da, beraz, eskakizun sozial, etiko edo ingurumen-eskakizunak barneratzea.

Dena dela, Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorra, Europa mailan, oso aurreratua dagoen kontzeptu eta praktika bat da. Herralde asko urte luzez lanean

aritu dira arlo horretan aurrera egin ahal izateko. EB27tik ia estatu kide gehienek EKPrako Nazio Ekintza Planak onartu dituzte, batzuek antzeko eskemak garatu dituzte eta gehienek ingurumenari eragindako kalteak murriztea dute helburu nagusizat, klima-aldaketa ahalik eta gehien ekidingo duten erabakiak hartuz edo jardunbide egokiak zabalduz erosketa eta kontratazio publikoaz arduratzen direnen artean. Hori horrela da, besteak beste, hasiera batean Europa mailan Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen (EKPB) aldeko jarrera gailendu zelako. Ikuspegi soziala beranduago lantzen hasi bazen ere, *Buying social* gidaliburua argitaratzearekin argi geratu da dimentsio soziala ere kontuan hartuko dela EKP prozeduran EB mailan eta hainbat estatu kidek eskakizun sozialak barneratu dituzte beren Nazio Ekintza Planetan.

Bibliografia

- Brammer, S. eta Walker, H. (2011): "Sustainable procurement in the public sector: an international comparative study", *International Journal of Operations & Production Management*, **31(4)**, 452-476.
- Bull, G.; Nilsson, S.; Williams, J.; Rametsteiner, E.; Hammett, T. eta Mabee, W. (2001): "Wood procurement policy: an analysis of critical issues and stakeholders", *Forestry Chronicle*, **77(2)**, 325-340.
- Erridge, A. eta Hennigan, S. (2007): "Public Procurement and Social Policy in Northern Ireland: The Unemployment Pilot Project", in G. Piga eta K. V. Thai, *Advancing Public Procurement: Practices, Innovation and Knowledge-Sharing*, PrAcademics Press, 280-303.
- Europar Erkidegoen Batzordea (2001): *Comunicación interpretativa de la comisión sobre la legislación comunitaria de contratos públicos y las posibilidades de integrar los aspectos medioambientales en la contratación pública*, COM(2001) 274 azkena, Brusela.
- Europakor Batzordea (2010): *Buying Social. A Guide to Taking Account of Social Considerations in Public Procurement*, Publications Office of the European Union, Luxenburgo.
- , (2011): *Impact and Effectiveness of EU Public Procurement Legislation*, Batzordeko langileentzako lanerako dokumentua, SEC (2011) 853 azkena, Brusela.
- Evans, L.; Nuttal, C.; Mouat, A. eta Ewing, D. (2010): *Assessment and Comparison of National Green and Sustainable Public Procurement Criteria and Underlying Schemes*, Oxfordshire.
- Faith-Ell, C.; Balfors, B. eta Folkenson, L. (2006): "The application of environmental requirements in Swedish road maintenance contracts", *Journal of Cleaner Production*, **14(2)**, 163-171.
- Hall, M. eta Purchase, D. (2006): "Building or bodging? Attitudes to sustainability in UK public sector housing construction development", *Sustainable Development*, **14(3)**, 205-218.
- IHOBE (2011): *Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua. Euskadiko Administrazio Publikotik bere ezarpenerako eredu eta adibideak* (4. ed.), IHOBE, Bilbo.
- Larrazabal, E. (2012): *Un instrumento eficaz de política de empleo: la incorporación de cláusulas sobre inserción laboral de personas en situación o riesgo de exclusión en la contratación del sector público*, doktorego-tesia, UPV/EHU.

- , (2011): “Contratación pública con empresas de inserción: cláusulas sociales y mercados tutelados”, *Revista de Derecho Social*, **54**, 217-242
- Matthews, D. eta Axelrod, S. (2004): “Whole life considerations in IT procurement”, *International Journal of Life Cycle Assessment*, **9(6)**, 344-348.
- Morgan, K. (2008): “Greening the Realm: Sustainable Food Chains and the Public Plate”, *Regional Studies*, **42(9)**, 1.237-1.250.
- OECD. (2013): *Public Procurement for Sustainable and Inclusive Growth. Enabling reform through evidence and peer reviews*. OECD, Paris.
- Preuss, L. (2009): “Addressing sustainable development through public procurement: the case of local government”, *Supply Chain Management*, **14(3)**, 213.
- Rimington, M.; Smith, J. C. eta Hawkins, R. (2006): “Corporate Social Responsibility and sustainable public procurement”, *British Food Journal*, **108(10/11)**, 824-837.
- Steurer, R.; Berger, G.; Konrad, A. eta Martinuzzi, A. (2007): *Sustainable Public Procurement in EU Member States: Overview of government initiatives and selected cases*, RIMAS, Viena.
- UNEP; UNOPS; ILO; ITC ILO (2011): *Buying for a Better World. A guide on Sustainable Procurement for the UN System*, UNEP, Paris.
- Walker, H. eta Brammer, S. (2009): “Sustainable procurement in the UK public sector”, *Supply Chain Management: An International Journal*, **14(2)**, 127-38.

